

Herri barruko erosketak sustatu nahi dituzte Eguberri hauetan

Salkin eta On Bizi elkarteek herri barruko merkataritza sustatzeko kanpaina bana burutuko dute Andoainen eta Urnietan.

Andoainen asteburu honetan ekingo diote Eguberrietako ekitaldi sortari. Zumea plazan merkatu txikia izango da. Herriko merkatalguneetan dagoeneko Salkineko dendetan Eguberrietako saskiak lortzeko aukera dago. Ekitaldi askoren artean bi baizik ez dira horiexek. Andoainen ekitaldi gehiago burutuko baita: Santomas egunean txistorra jatea,



Urnietan "Bezeroaren Astea" burutuko da abenduaren 15etik 20ra. Andoainen egitarau oparoa aurkeztu dute urtarilaren 5a bitarte.

Olentzeroren etorrera, Gazte Astea, IkusZirkus, gaztainjatea, Gabonetako haur parkea, Errege magoen etorrera...


Antolaketa lanetan murgildu dira Udala, Salkin eta herriko ikastetxeak, helburu bikoitzarekin: herritarrek beren inguru-

Dendari elkarteek Eguberrietako saskiak eta bestelako sariak banatuko dituzte erosleen artean

neaz gozatzea eta herrian antolatutako ekitaldiak ezagutaraztea.

Urnietan, bestalde, Eguberrietan haur eta gazteei begira hitzordu ugari antolatu ditu Udalak. Inñistorrak, bere aldetik, Santomas eguneko azoka antolatuko du abenduaren 21ean. Merkataritzari dagokionez, On Bizik "Bezeroaren Astea" antolatu du abenduaren 15etik 20ra. Sariak eta zozketak izango dira herrian bertan erostea erabakitzen duten erosleen artean.

Elurra Adarran



Aurreko asteburuan Adarra zuritu zen, eta datorren asteburuari begira ere elurra iragarri dute.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Antzezlan berria taulara



Hiazinto Fernandorenaren idatzi batean oinarritutako "Ez dira aspaldiko kontuak" antzezlan estreinatuko dute Seguran, larunbat honetan.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

Joxan Lizarribar gogoan izango dute

Berria taldeko lehendakariaren omenez, "Jainko txiki eta jostalari hura" ikuskizuna Basteron, abenduaren 19an.

Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda eta Bingen Mendizabal laukoteak euren ikuskizun berriena taularatuko dute Bastero Kulturgunean, iluntzeko 20:00etan hasiko den emanaldian.

Berria taldearekin batera, lau kulturgileek gorazarre egingo diote Berria taldeko lehendakari izan zen Joxan Lizarribari. 2013ko udaberrian hil zen eta hark utzitako hutsunea handia izan da euskaltzale eta

kulturzaleen artean. Sarrerak dagoeneko salgai daude Ernaitza liburutegian, eta nahi duenak telefonoz ere egin dezake eskaera 943 30 43 45 telefono zenbakira deituta.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

Urnietako ahotsak bilduta daude



Urnietan grabatutako 33 elkarrizketak 666 pasarte laburretan ikusgai daude ahotsak.com webgunean.

Abenduaren 2an, Euskararen Egunaren bezperan, Ahotsak eta Urnietako Udalak antolatutako ekitaldia egin zen Lekaion. Bertan izan ziren Ahotsak ekimeneko Idoia Etxeberria eta Ainhoa Ansa, Udalaren aldetik, Mikel Pagola alkatea eta David Rosco Sustapen zinegotzia, eta Urnietan grabatutako bideoen protagonista nagusi diren herriko 33 adinduetatik 22.

Ainhoa Ansak hartu zuen lehenik hitza (bera izan zen etxeko Urnietako adinduen testigantza gehiena jaso zituena). Eskerrak eman zizkien urnietarrei, etxeko atea ireki eta euren

historia, bizipenak, gerra garaiako kontuak, jolasak, ohiturak eta abar hain modu egokian azaltzeagatik.

Nabarmendu zuen jada interneten munduaren edozein tokitatik ikusgai daudela testigantza horiek. Altxor bikaina dira, etorkizunerako. Ezagutzera eman zuen, Urnietan grabatutako 33 elkarrizketak 666 pasarte laburretan banatuta daudela, "666 plazer txiki". Ondoren, **Idoia Etxeberriak** jakinarazi zuen duela 11 urte Debagoienan sortu zela **Ahotsak**, eta dagoeneko Euskal Herri osoko 285 herritan jaso direla testigantzak.

Mikel Pagola alkatea Urnietan egindako lan bikaina nabarmendu zuen, Udalarekin 2011n sinatutako hitzarmenari esker gauzatu zela. Eta Euskararen Egunaren bezpera izanik, euskara erabili eta maitatzeko gonbidapena luzatu zien bertaratutakoei, aurreko belaunaldiak, garai zailetan egin zuen moduan.

Ekitaldiari amaiera emateko bideo zatitxo batzuk proiektatu zituzten pantaila handian. Grabazio saioetan parte hartutako bakoitzari DVD bana oparitu zieten.

[URNIETA, 5. ORRIALDEA]

Andoaingo artea hizpide



Itsaso Gutierrez ikerlariari elkarrizketa.

[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]

Plan Orokorra, aurkezpen ekitaldia

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra prest du Urnietako Udalak, eta dagoeneko ikusgai ipini du Lekaion. Ostegun eta ostirral honetan ere erakusketa zabalik izango da. Bertan planaren ildo nagusiak agertzeko panelak eta bideoak ikusgai jarri dituzte.

Erakusketak biltzen duen informazio hori zuzenean eskainiko dute Udala agintariek, ostegun honetan iluntzeko 19:00etan hasita.

Etxean konposta egiteko aukera

Udalak etxean bertan konposta egitea sustatu nahi du. Udala iturrien arabera, gaur egun 148 familia ari dira etxeko konposta egiten. Udala kopuru hori handitu nahi du eta, Al-
dundiarekin batera, lorategia edo baratzea duten etxebizitzetara zuzendutako sentsibilizazio kanpaina abiatu du. Urnietan ohikoa den bezala, kanpainaz Artelatzen enpresa arduratuko da. Bost hilabeteetan konposta egitea erabakitzen duten familien artean formakuntza eta aholkularitza eskainiko dute.

Izen-ematea Gazte Astea

Haur eta Gazte sailak Eguberrietako Gazte Astea izena emateko epea zabaldu du. Abenduaren 18ra bitarte izena eman behar da, Gazteleku bertan. Abenduaren 22an hasi eta urtarilaren 2ra bitarte tailerrak, irteerak, jolasak eta abar iragarri dituzte.

MARIBEL VAQUERO URNIETAKO ALKATE-ORDEA

“Ez dut aurrekontuaren luzapenik aurreikusten”

Aurrekontu proposamenaren inguruko elkarrizketa hitzartuta, galderak egin aurretik, Maribel Vaquero azalpen zehatzak eskaintzen hasi da: “Ez dugu nahi

genuen aurrekontua egin, Rajoyk ezarritako razionalizazio legeak aurrekontua handitzeko bidea oso estu utzi digulako”.

Kontabilitate erregela zehatza erabiltzera behartzen gaitu Espainiako Gobernuak, iazko gastua erreferentziatzen hartuta”, dio Urnietako alkate-ordeak. Baita izatera, Urnietak aldagai positiboak badituela nabarmendu du: “Udaletxearen egoera ekonomikoa ona da, ia zorpetzerik gabekoa. Zorpetze hori gainera interesik gabekoa da”. Gauzak horrela, eta industrigune handirik ez duenez, sarrera eta gastuen arteko oreka egonkorra da. Etorkizunera begira, urte urte inbertsio ahalmena handituz doa. Aurtengorako milioi bat euro aurreikusi dute herrian zehar hobekuntzak egin ahal izateko.

Udala azken urteotan diru kopuru handi samarra gordezen ari da egitasmo handietarako. Ia bost milioi eurokoa da kopuru hori, kantitate polita. Maribel Vaquerok aurreratu duenez, gobernu taldeak oposizio alderdien oniritziarekin partida hori zertan inbertitu erabakitzeke partaidetza prozesua abiatuko du. Kiroldegia eraberritzean edota Idiazabal kaleko San Juan plazara iristeko igogailuan inbertitzeko erabili ahal izango da.

Aurrekontu proposamen zehatza egin duzue 2015erako. Zer falta da oposizio alderdien batek oniritzia eman eta aurrekontuak onartzeko?

Maribel Vaquero. Abenduaren biaz amaitu zen proposamenak aurkezteko epea. Bilduk dagoeneko adierazi digu eurentzat lehentasuneko zer izan behar duen. Haien ideia nagusiak jaso ditugu.

Alderdi sozialistak oraindik ez dizkigu proposamenak helarazi. Bilera bat egiteko dugu, hainbat galdera egin nahi dituztelako. Beharbada galdera horiek erantzun ondoren proposamenak egingo dituzte, edo ez. Nabarmendu nahiko nukeena da prozesua makal doala.

Denak ere, egia esatera, au-



Maribel Vaquero Urnietako alkate-ordea da.

“Gaur gaurkoz ez dut aurrekontuaren luzapenik aurreikusten. Horretarako lan egiten ari gara, aurrekontu berria aurkezteko”

rrekontuak dituen mugaz jakitun dira.

2015eko Udala aurrekontuetan onarpenik ez izatea ezustekoa izango zen, orduan?

M.V. Gaur gaurkoz ez dut aurrekontuaren luzapenik aurreikusten. Horretarako lan egiten ari gara, aurrekontu berria aurkezteko.

Nik beti defendatu dut agintaldi berrirako aurrekontua onartuta uztea onuragarria dela.

Epe erdira Urnietan egitekoak diren inbertsio handiak aipagai dira. Horiek zehazki noiz ikusiko dituzte herritarrak bere begiekin?

M.V. Kiroldegia eraberritzea edota igogailuaren kasuan, aurreproiektuak landuta daude. Baina egitasmo horiek proiektu bilakatu behar dira. Igogailuaren inber-



Urnietako kiroldegia.

tsioa milioi bat eurokoa da. 2015ean proiektua onartuko balitz, beharbada 2016an lana amaituta egongo litzateke. Kiroldegia eraberritzea atalka egin daitezke. Beharbada egitasmo hori garatzea zailagoa izango da, erabiltzaileen iritzia garrantzia handikoa izango baita. Horretarako osatzen ari da kirol mahaia.

802.000 euro bideratuko dira Gizarte Zerbitzuetara. Maroto Gasteizko alkateak auzitan jarri ditu RGla bezalako laguntzak. Zer esango zenioke iritziz berekoa den herritarrari?

M.V. Lehenengo eta behin informazio zehatza erabiltzea eskatuko nioke. Esames asko za-

“Zuhur jokatu da, beharbada zuhurregi. Udala ez da bere ahalbideen gainetik ibili. Joera hori berdina izan da alkate ezberdinekin, gainera”

baltzen dira horrelakoetan eta kasu askotan gezurretan dabil-tza. Ez zait politikoki zuzena iruditzen boto batzuk eskuratzeke gai horiek erabiltzea. Seriotasun gehiagorekin hitz egin beharko genuke gai hauetaz, eta bereziki ez dezagun gai hori atzerriko komunitate zehatzen aurka erabili.

Urnietak badu gauza on bat, Udala kontuak ondo kudeatu direla.

M.V. Azken agintaldietan eta alkate ezberdinen aldetik joera hori nabarmendu da. Zuhur jokatu da, beharbada zuhurregi. Udala ez da bere ahalbideen gainetik ibili. Bere aukeren arabera ibili da beti, eta hori oso garrantzitsua izan da. Joera hori berdina izan da alkate ezberdinekin, gainera. Jokabide hori eskertzekoa izaten ari da ekonomia hain estu dabilen garai hauetan.

Sagardoa, txistorra, sagar tarta..., aukera zabala abenduaren 21ean

Santomas eguna Urnietan, Eguberriaren atarikoa



Giro polita sortzen da San Juan plazan, Santomas egunean.

Eguberrien aurreko igandea Santomas eguna, eta dagoeneko Urnietan askotxo dira herrian ospatzen geratzen direnak. Inñistorra euskaltzaleen biltzarrak azken sei urteotan jarraian Santomas azoka ospatu du San Juan plazan, udaletxeko arkupetan.

Herriko sagardozaleen uzta gozatzeko aukera aparta izateaz gain, hitzorduak arratsalde polita igarotzeko osagai gehiago eskaintzen ditu. Hala nola, txistorra, taloa, Eguberrietako saskiaren zozketa, etab.

Azoka arratsaldeko 17:00etan hasiko da, 20:30ak arte.

GAZTAREN PISUA ASMATU BEHAR
Kantoin eta Gurian gazta bana dago. Zer egin behar da? Pisu zehatza asmatu.

SAGAR TARTA LEHIAKETA
Iaz parte hartzaile kopurua polita izan zen. Aurten ere parte hartzeko deia luzatu dute.

Ehiza xehea lehiaketa

Santa Kruz ehiza eta arrantza elkarteak abenduaren 20ra-ko, larunbata, herri mailako ehiza xehea lehiaketa antolatu du, txakurrarekin. Lehiaketa Adarra inguruan izango da 09:00etatik 13:30etara bitartean. Izena ematea derrigorrezkoa da, elkartearen abenduaren 14a baino lehen. Izen ematearen kostua 25 euro-

koa da eta izena ematerakoan ordaindu beharko da. Ehiztari bakoitzeko lau pieza izango dira.

Sari banaketa eta opari zozketa egunean bertan egingo da elkartearen eskainiko den afarian.

Afarira joan nahi izanez gero, aipatu egin behar da izena emateko orduan.

Elurtea Adarran



Adarra elurtuta.


@ Jonathan Lopez

Aurreko igandean Adarra zurri-zuri esnatu zen. Inguruetako herritar asko igo zen mendira, horien artean Jonathan Lopez. @urnietameteo twitter

kontutik hainbat argazki zabaldu zituen internet sarean. Tartean, Adarrako bidean atarra zuena. Irudian ikusten den bezala, tontorra elurtuta zegoen.

Gera zaitez Urnietan, denetik duzu bertan!

Bezeroaren astea abenduaren 15etik 20ra. ZATOZ! Opari asko ditugu zure zain




ALFONSO CEA
NENYA HAUR DENDA

Zein itxaropen duzu On Biziren sorrerarekin?

Bezeroak dendara erakartzeko lagun-garria izatea espero dut. Herria dinamitzatzeko ekimenak antolatzen jarrai dezatela, hemen gaudela adierazteko.

Zein da zure berezitasuna?

Arropaz gain, produktu osagarriak. Botila-biberoak, adibidez, ama asko etortzen dira erostera. Bestalde, pardela-tartak ere bai. Oparitzeko asko erabiltzen da.



AMAIA OLINAGA
ABALLARRI TABERNA

Ostalaritza sustatzeko ekimenen bat nabarmenduko al zenuke?

Elkar hartuta lan egin beharko genuke, bono bidezko sistema erabiliz. Batetik, janariak ematen ditugunak. Eta, bestetik, kopak ateratzen dituztenak.

Krisia gainditzeko zer ari zarete egiten?

Pintxopotea adibidez. Hilean behin kostu txikiko afariak antolatzen ditugu, eta eramateko paella eskaintzen hasiko gara.

**Ez galdu aukera!
Egin itzazu erosketak
Urnietan**

**On Bizik
Gabon
zoriontsuak
opa dizkizu!**



JABIER OLAZIREGI
GOYA HARATEGIA

Urnietako populazioa kontuan hartuta, saltoki gutxi dagoela uste al duzu?

Hutsunea egon badago. Hortik harago, herriko merkatalgunetxikietan gehiago kontsumitzea faltako litzateke.

Zein da zuen berezitasuna?

Guk produktu ona eskaintzen dugu, bertako produktua. Txorixoa, saltxitxa, txistorra..., gure produktuak dira, bertakoak. Eskaintza ona egiten dugu.



NURIA ITURBE
ITURBE ALTZARIAK

On Bizi elkarteak 2015ean zein egitasmo gauzatzea gustatuko litzazuke?

Gustatuko litzazuke prestakuntza ikastaroekin jarraitzea. Gure zerbitzu hobetzen duen konbentzimendua dugu.

Urte berezia da zuena...

Pozik gaude, aurten 50 urte bete ditugulako. Sukaldeak egiten hasiginen, eta bezeroei guran erakutsitako konfiantza eskertu nahi diegu.

MERKATARITZAREN
DINAMIZAZIO-RAKO
BULEGOAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA





IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Xalbadorren fedea nolakoa da?

Bogota kapitalean (Kolonbia) orduko Zeruko Argia hartzen nuen eta behin batean Xalbadorren bertso hauek leitu nituen: “Jainkoa eta ni”. Jainkotaz asko irakurria naiz baina Xalbadorrenak bezalakoak ez; bertso horiek azaltzen duten esperientzia pertsonala azalduko dut. Bizitza bi puskatan zatitzen du: lehenengoa Jainkoari beldurra zion garaia eta bestea lagun egin zena berarekin. Lau bertotan azaltzen du garai hau: garai hartako apaizengandik eta gurasoengandik eta abar muinetaraino sartu zitzaidan Jainkoaren beldurra. Erori erraza zelako eta abar bere burua pekatari ikusi zuen, Jainkoak etsi zuela berarekin pentsatzen zuen beti. Ondoren bezala hau dio:

“Zeruko edertasunak berak hotz-hotza ninduen uzten, kastiguaren labe gorria baidzik ez nuen ikasten.”

Sinesgarritz betetako hitzekin deskribatzen du garai hau, gutxi-asko guk denok bizi izan duguna.

Bigarren zatia deskubrimentu izugarri baten azalpena da eta hitzez hitz aldatzea komeni da. Aurreneko lerroan hau dio: “Orain ez dakit, Jauna, zu edo ni aldatu ote naizen”. Ez daki noiz eta nola gertatu den

aldaketa hori, ez da bere merituz izan, ez bizkorra delako, ez maisu onar aurkitu dituelako... “Etzera egun ene gogoan lengo itxuraz agertzen”. Aitor-tzen du aldatu dela eta ez dela beldurrarena, “gertatzen denaz, o Nagusia, kartsuki zaitut eskertzen”. Kakoa hemen dago, gertatu egin zaio, berak ez dakila, ez bere kabuz baizik dohainez, eman eta eskaini egin zaio. Dohain baten aurrean eskertzea dagokio.

“Gure arteko hostasun hartaz hasia nintzen aspertzen”; lehengo beldurrezko fedea hostasuna zekarkion eta aspertu egiten du horrek. “Jainko maite, ordu zen noizbait lagun egin gintezen” esaldi mardula da baina berak nabaritu duenetik aterea. Laguna du ordutik, bere bizitza nolakoa den azalduko digu: “Bere laguna eginaz gero enetzat ez da nekerik”. Lehen dena nekea, etsipena, nahigabea, dena aspergarria; orain alderantziz. “Zure begirada xamurrak jarri nau kofiantzaz beterik”. Garai bateko apaizen begiradek beldurtzen zuten bezala, Jainkoaren begirada xamurrak betetzen du konfidantzaz.

“Inungo eskerik ez dizut bada egiten nire barrendik”, Ez dio ezer eskatzen: “ez kastigua urrun dezazun ez eta sari eskerik”. Ez infernutik urruntzeko ez eta zerua eskuratzeko: “gaurkoz ez dizut ezer eskatzen, amodioaz besterik”. Gaur amodioa debaldekoa eskatzen dio. Konfiantza, lagunak garela, hori eskertzea, horiek dira Jainkoarekin dituen lokarriak.

Guk denok izan dezagula horrelako ditxa.

Oharra: bertso hau nire erara euskeratuta dago.

Hiru atxiloketa lapurreta saiakera batean

Abenduaren 6an, larunbatarekin, Ertzaintzak hiru gizonetako atxilotu zituen Idiazabal kalearen hasieran, obra-ko guneko hondeamakina bat lapurtzen saiatzen ari zirenean.

Antza, herritar bati ez ohi-koa iruditu zitzaion hiru pertsona horien jokabidea eta Udaltzaingora deitu zuen. Hauek iristean, hiru pertsona horiek hesituta zegoen gunetik hondeamakina atzerriko matrikula zuen kamioi batean sartzen ari ziren. Argibideak eskatuta, ez zuten leku horretan jarduteko ino-

lako dokumenturik aurkeztu, ezta arrazoirik eman ere. Argudio gisa, makina hori Internet bidez eskuratu zutela adierazi zuten.

Udaltzaingoak deituta Ertzaintza gertatutakoa iker-tzen hasi zen. Frogak aztertu ondoren, Ertzaintzak 35, 37 eta 38 urteko hiru gizonetako atxilotu zituen hondeamakina lapurtzen ari ziren akusaziopean. Atxilotuen kamioia zigilatuta geratu zen ikerketa erabat argitu arte. Atxilotuak Donostiako guardiako epaitegiaren esku ipini zituzten.

Idiazabal kaleko biribilgunea dela eta, eragozpenak astean zehar

Errepide mozketak

Asteartean Andoain aldetik edota Errekalde kaletik San Juan plazara igo nahi zutenek bidea moztuta topatu zuten. Mozketak astean zehar luzatuko da, Idiazabal kaleko biribilgunea eraikitzeke lanak direla eta. Hori dela eta Urnietako Udalak oharra argitaratu du: “Idiazabal kalea zabalik egongo da autoentzat, baina Errekalde aldetik Berrasoeta auzoko sarrera

eta Txoritagain, San Juan eta Urraka auzoetara doana –Jubilatuena Etxetik igotzen dena– itxita daude. Oztopo horiek arintze aldera, ordezkari bideak erabiltzeko eskaera luzatu nahi diegu urnietarrei.

Berrasoeta auzoan bizi direnek, Itxaspeko igoeratik sartu ahal izango dira auzora. Irteteko taxi geltokia dagoen bidea erabili beharko dute.

Txoritagainen, San Juanen edo Urrakan bizi direnak, Erratzuko industriegunetik edo Goi Mendiko bidegurutzeko sarre-ratik heldu ahal izango dira auzora. Kasu honetan, auzoetatik irteteko gomendatzen den bidea Aranzubiko aldatetik Idiazabal kalera jaisten den bidea da”.

Astebururako trafikoko mozketarekin amaitzea espero dute.

CAF enpresako euskara arduraduna hizlari Salesiar ikastetxean

Euskara lan munduan

Gaur egun, beste edozein hizkuntzak adinako eragina du euskarak edozein gauza fabrikatzeko, esanaz hasi zuen hitzaldia Joxe Begiristain CAFeko euskara ordezkariak. Enpresa munduan euskaraz lan egin daitekeela erakustera hurbildu zen Urnietako Salesiar ikastetxera eta trenen enpresa adibide hartuta, euskarak lan munduan duen tokiaz mintzatu zen.

EUSKARA ARDURADUNA DUEN ENPRESA PRIBATU BAKARRA

Gaur egun, CAF da euskara arduraduna duen enpresa pribatu bakarra eta, hein handi batean, euskaraz aritzen direla azaldu zuen. Kartelak, seinaleak, tresneriaren izenak, prebentzioarako aginduak, inprimakiak, dokumentuak..., informazio guztia euskaraz dute. “CAFen helburua elebitasuna da; langileak euskaraz lan egiteko aukera izatea”, esan zuen arduradunak.

Duela bederatzita urte, lanera joatea Burgosera edo Sevillara joatea bezala zela alderatu zuen, euskaraz ez zuelako bizitzarik bertan. Egun, ordea, barne eta kanpo harremanak euskaraz egiten dituzte. Horrez gain, euskara trenetan txertatzera ere iritsi dira. Esate baterako, Gasteizko tranbia egin zutenean, gidatzeko mahaiak ere euskaraz edukitzea lortu zuten. “Botoi bat zapaldu eta euskaraz hitz egiten du trenak, eta trenek ere euskaraz hitz egin dezaten bideratzea, salto kualitatibo handia da”.

Bestalde, euskara erabiltzeko ahalmena duten pertsonen kopurua handitzea ere bada euskara batzordearen helbu-



Ikasleek interesa agertu zuten, batez ere, hizkuntzen eskakizunengatik.

CAFeko euskara arduraduna enpresa munduan euskaraz lan egin daitekeela erakustera hurbildu zen

CAF enpresan lanpostu guztiei dagozkien hizkuntza eskakizunak zehaztuta dituztela azaldu zuen Joxe Begiristainek

rua. “Badago oraindik euskaraz ez dakienik. Hori ez dugu inoiz ahaztu behar eta horiei erraztasunak eman behar dizkiegu ikas dezaten”. Hala, euskara ikasteko laguntzak ematen ditu enpresak, eta langileak nahi duen euskaltegia matrikula ordaindu eta jarraipena egiten diete. Irungo lantegian, gainera, enpresan bertan izaten dituzte klaseak.

Hizkuntzaren erabilera eza-gutza bezain garrantzitsua dela adierazi zuen ikasle batek eta horren aurrean zer egiten duten galdegin zuen. Langileei euskaraz hitz egin dezaten behartzea ezinezkoa denez, motibatuz eta sentsibilizatuz, bertako hizkuntza erabiliz lan egin daitekeela ikusarazten dutela erantzun zuen Joxek. Gainera, langileen

batez besteko adina behera doala ikusita eta ezagutzak gora egiten duela jakinda, egoera gero eta hobean daudela adierazi zuen: “Sinestu nahi dut denborekin CAFek euskara hutsez funtzionatuko duela”.

Ikasleek interesa agertu zuten, batez ere, hizkuntzen eskakizunengatik eta agiriak kontuan hartzen diren edo ez jakin nahi izan zuten. CAFen, behintzat, lanpostu guztiei dagozkien hizkuntza eskakizunak zehaztuta dituztela azaldu zuen. Jendearekin harremana duten lanpostuetan hizkuntza maila bat exijitzen hasi direla esan zuen eta, beraz, ikasleek ikusi zuten euskara garrantzitsua dela, ez soilik lanpostu jakin batzuk lortzeko, baita giro euskaldunean lan egiteko ere.

URNIETAKO HIZKERA ETA HERRIKO PASARTEAK IKUSGAI ETA ENTZUNGAI DAUDE INTERNET SAREAN

Urnietako hizkera Ahotsak.eus webgunean entzungai dago

Tokian tokiko euskara jaso eta zabaltzeko osatu zen Ahotsak ekimena. Euskal Herri osoan barrena ibili dira, baita Urnietan ere. 2010 eta 2011 urteen artean herriko hogeita hamahiru lagun elka-

rrizketatu zituzten eta dagoeneko ehunka bideo pasarte ikusgai dago Ahotsak.eus webgunean. Esker ona adierazteko, Udalak eta Ahotsak elkarteak kideek solaskide izandakoak bildu zituzten Lekaion.

Mikel Pagola alkatea, David Rosco Sustapen zinegotzia eta Ahotsak elkarteak Ainhoa Ansa eta Idoia Etxeberria izan ziren Udalaren izenean eta Ahotsak elkartearen izenean esker ona adierazteaz arduratu zirenak. Ahotsak taldekoek adierazi bezala, lankide izandakoei "omenalditxo" eskaini nahi izan zieten, Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian.

Urnietan, denera, 33 elkarrizketa egin dituzte. Ainhoa Ansa egin zituen, 2010 eta 2011 urteetan: "Helburua bertako ahozko ondarea jasotzea zen: bertako euskara ez ezik, baita historia ere".

"Helburua bertako ahozko ondarea jasotzea zen: bertako euskara ez ezik, baita historia ere"

Ainhoa Ansa

historia ere. Urnietako Udalar esker, grabazio guztiak lantzeko aukera izan dugu: jasotakoa minutuz minutu entzun, pasarte interesgarrienak aukeratu eta bideoak sarera igotzekoa. Guztira 666 bideo pasarte ikus daitezke webgunean. Altxor hori nahi duenaren eskura dago orain".

www.ahotsak.eus



Ekimenean parte hartu zuen herritar bakoitzari DVD bana oparitu zieten. Irudian, ekimeneko partaideak eta Udal ordezkariak.

Gabonak 2014 Urnieta

OSTEGUNA 18

19:00 Lekaio

Olentzero, jaiotza eta gabon-txartelen lehiaketa: sari banaketa.

ASTELEHENA 22

11:00 - 13:00 Lekaio

Sormen tailerra eta paratxutarekin jolasak. 5-8 urte

17:30 - 19:30 Lekaio

Sormen tailerra: buruhandia. 9-11 urte

ASTEARTEA 23

11:00 - 13:00 Lekaio

Sormen Tailerra: buztina eta ginkana frontoian. 5-8 urte

18:00 Berrasoeta parkea

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.

ASTEAZKENA 24

12:00 San Joan plaza

Ikastetxeetako Olentzeroen topagunea

17:00 San Joan plaza

Gabon kantak kalean

OSTIRALA 26

17:00 Sarobe

Dantza ikuskizuna: "Spaceko Zarama" (euskaraz)

IGANDEA 28

16:00 / 18:30 Sarobe

Zinema: "Friends: Abentura Munstroen uhartean" (euskaraz)

ASTELEHENA 29

11:00 - 13:00 Lekaio

Sormen tailerra eta jolasak. 5-8 urte

17:30 - 19:30 Lekaio

Sormen tailerra eta Ginkana frontoian. 9-11 urte

ASTEARTEA 30

11:00 - 13:00 Lekaio

Sormen tailerra: mosaikoa eta harrapaketa jolasak. 5-8 urte

17:30 - 19:30 Lekaio

Sormen tailerra eta paratxutarekin jolasak. 9-11 urte

Olentzero, jaiotza eta gabon-txartelen erakusketa abenduaren 18tik urtarrilaren 5era Lekaion

943 00 80 33



Urnietako Udala

LEIÇAUR 13

Andoaingo artegintza eta artistak, ikergai

Itziar Gutierrez gazte andoaindarraren "Artea Andoainen: artista garaikideen obra eta bizitza" ikerketa lana dakar aurkeztu berri den *Leyçaur 13* aldizkariak. Artearen mundua eta Andoain batu

nahi izan ditu, Etxeberria, Olazabal, Irazu eta Amondarain artegileen obra ikertuz batik bat. Bere asmoa, modu didaktikoan, artean adituak ez direnengana iristea izan dela aitortu du.

Zer dela eta animatu zara arteak Andoainen izan duen ibilbidea ikertzera?

Itziar Gutierrez: Egia esan, nahiko ustekabea joan da dena. Artearen Historia ikasketa amaitzera nindoala erdiaroko ikonografiaz lan bat egin behar nuela eta, Andoaingo artxibategira abiatu nintzen; Santa Krutz ermitako kristo gotikoari buruzko informazioa nahi nuen, batik bat. Bertan ari nintzela, Karmele Otaegi artxibozainak animatu egin ninduen Andoaingo arteari buruzko ikerlana egitera. Ados geunden arteak Andoainen ikusgarritasun falta zeukala, eta hutsune hori betetzen saiatu naiz. Hurbilketa lan bat izan da, beste ezer baino gehiago.

Jende ugari lagundu dit ikerketa honekin, eta denekin nago eskertuta, elkarrizketa eskaini didaten lau artistez gain: **Marta Trutxuelo** eta **Karmele Otaegi** artxibozainak, **Garbiñe Agirre**, **Eduardo Arreseygor** eta **Marga Oyarzun** arte sorkuntza tailerrekoak, **Haizea Barcenilla** EHUko irakaslea, senide, lagunak eta bereziki **Irati Karrera**...

Zer aurkituko du irakurleak zure idazlanean?

I.G.: Euskal Herriko arteak azken hamarkadetan Andoainen izan duen ibilbidea, garapena, kultur mugimenduak, ekintza artistikoak, Basteroko erakustokia..., deskribatu ditut, testuinguru historikoa azaltzearekin batera. Herriko lau artista hautatu ditut, horiengan jarriz artea berezia. Pertsona gehiago izan zitezkeen (Eduardo Arreseygor, Xabier Laka, emakumeen kolektiboa...), izan ere artegintza modu aberatsean jorratzen baita herrian. Baina laukote hori bertan jaioa da eta nahiko ospea lortu du, nork bere kasara bide emankorra eginez. Gainera, lauek ere euskal artegintza garaikidearen aro ezberdinak islatu zitzaketela iruditzen zitzaidan.

Arte adituei zuzendutakoa al da?

I.G.: Hasieran banuen beldur



Arte garaikideak Andoainen egin duen ibilbidea eta bere protagonistak ikertu ditu Itziar Gutierrezek.

hori, ez ote zen zientifikoezia edo elitistegia geratuko. Beraz, saiatu naiz artea herritar soilari hurbilarazten, gauzak ahalik eta ulerterrazen azaltzen. Kontzeptuak deskribatzen ere saiatu naiz, baina jakina, kontua ez zen arte korronte ezberdinak deskribatzen hastea. Nolanahi ere, didaktikoa izan naizela uste dut. Artean aditua ez denak ere gustura irakurriko duelakoan nago, lan honek zer erakutsia emango diolako.

Artearen langintzak ez duela lau buru argien esku geratu behar transmititu nahi izan duzu?

I.G.: Halaxe da. Xabier Lakak aldarrikatu ohi duen bezala, zubiak eraiki behar genituzke artearen eta gizartearen artean; bada, nire ekarpen txikia egin nahi izan diot ideia horri. Alegia, artea ez lukeela izan behar elite batentzat mugatzen den jardueratik artistikoa. Andoainen, esaterako, badaude aukerak (ikastaroak, tailerrak...) arte munduan murgiltzeko, eta ez dago zertan talentu handikoa izan behar horietan parte hartzeko.

Banan-banan deskribatuko al diguzu laukotea? Gotzon Etxeberriarekin hasita.

I.G.: Artearen munduarekin beti harremanetan ibili den gizona da. Irakaslea izan zen ikastolatan eta Jaurilaritzarekin hezkuntza programak egin zituen; marrazkia landu zuen urte horietan, gehienbat. 2006an, tailerrean sartu eta eskultoretara dedikatzea erabaki zuen. Egurra, olibondoa lantzen du. Oso espresionista da; ez da hain formalista, eta beti zerbait adieraztera doa. Bereak diren gogoetak, kezak, sentimenduak..., eskultoretan islatzen ditu. Kontzeptu absolutuak lantzen ditu; hots, bizipen pertsonalekin harremanetan dauden maitasuna, sufrimendua... Horregatik daukate bere artelaneak hats politikoa, etikoa eta gizabidezkoa.

Iñaki Olazabal.

I.G.: Artista autodidakta da, neurri batean. Lantokitik kalean geratu zenean, Lakaren Sorabillako tailerrean jarri zen artegintzarekin harremanetan. Bertan heziketa jaso ostean, Artelekurako eta Dusseldorfeko eskolarako jauzia egin zuen. Alemanian arte sozialaren kontzeptua eskuratu zuen. Pariseko etxeetako teilatueta zinka deskubritu, eta harrezkero, huraxe hartu zuen material kuttun gisa.

Formala da bere estiloa, baina beti dauka alegoria edo metafora puntu bat. Kanpoan jartzeko eskulturak dira bereak, gehienbat. Oria ibaiaren ibilbidean zehar dauden zazpi artelanak (Zegaman lehena, Orion azkena) horren lekuko dira. Jaioterriari eskaintzen diona, Txistokiko pasealekuan, interesgarriena dela esango nuke.

Pello Irazu.

I.G.: Txikitandik piztu zitzaion arte munduarekiko sentiberatasuna, nonbait. Berak ere ez daki nondik datorkion zaletasuna, familiar ez baitauka inor. Adierazten duenez, Ondarretako ikastetxera eskolaz kanpoko ikastaroak ematera etortzen zen Ruiz Balerdirekin hasi zen margotzen. Konturatu zenerako, euskal arte berriaren mungimendua deitu zen etiketaren baitan topatu zuen bere burua; 23 urterekin, Espainiako arteari buruz Frantzian egin zen erakusketa ospetsu batean sartu zuten. Nazioartean ibilbiderik luzeena egin duen artista andoaindarra da. Eklektikoena da, ulertzen zailena. Oso aldakorra eta mugikorra da bere eskultura. Plastikaren munduan dauzkan kezak lantzen ditu.

“Saiatu naiz artea herritar soilari hurbilarazten, gauzak ahalik eta ulerterrazen azaltzen”

Itziar Gutierrez

Eta azkenik, Jose Ramon Amondarain.

I.G.: Aita margolaria zuen, eta harekin inbidia sentitzen omen zuen txikitari. Horrela, Bilbon Arte Ederrak ikasi zituen. Aitor izan du, hasierako urte haiekin fakultatean neoespresionismo abstraktua eta antzeko kontuak zeudela modan, eta horiek eragin izan ziotela. Nolanahi ere, ohartu omen zen bere margoen hoztasuna sentitzen zuela, ez zutela betetzen. Halako batean, beraz, horiengandik askatu, eta zer egin nahi zuen kontzientzia eskuratzen hasi zen. Pigmentu beltza eta oleoa hartu, eta lan dinamika bat jorratzen hasi zen, geroztik artelan bikainak eginez.

Teknikoki, artista bikaina da. Margolaria da berez; ez da eskultorea, baina mugan dabil beti. Maiz, margoaren bitartez eskulturara edo argazkigintzara hurbiltzen da. Diziiplina ezberdinekin jolastea du gogoko: pinturarekin egindako eskulturak, argazkiak diruditen pinturak...

Zerorri, egun, zertan zabilta artearen munduan?

I.G.: 20 urte bitarte Eduardo Arreseygorren tailerrean jardun nuen. Izugarri gustatzen baitzait margotzea; baina, beti-beti, dakien baten babesean. Ez daukat sortzailatzat nire burua; terapia gisa margoketa primeran datorkit, eta aski dut horrekin.

Nik Artearen Historiatik jo nuen, Arte Ederrekin ausartzeko nik daukadana baino maila handiagoa behar dela pentsatuta. Eta etorkizunean, zein bide urratu nahiko nukeen? Arte eta hezkuntza lotzen dituen jardunen bati helduko nioke gogoz.

MAHAI-INGURUA BASTERON FRANKISMOAK ERAGINDAKO BIKTIMEN PARTE HARTZEAREKIN

Argentinako kereila hizpide

Frankismoaren krimenen aurka Argentinan ireki den kereila izan zuten hizpide joan zen asteartean Basteron. Andoaingo frankistak eragindako biktimen alde diharduen "Oroituz, Andoainen" elkarte-

ak antolatu zuen ekitaldia, giza eskubideen nazioarteko egunaren bezperan. Felipe Izagirre, Josu Ibargutxi, Agustin Plaza eta Jose Luis Martinez Ocio izan ziren parte hartzaileak.

Felipe Izagirrek eta Josu Ibargutxik Franco bizi zela atxiloteta, torturak eta kartzelan urtetako egonaldia ezagutu zuten.

Beste biak zaurituak izan ziren 1976ko martxoaren 3an Gasteizko gertakizunetan; gainera, Martinez Ocioren kasuan, anaia bat hil egin zuen poliziak.

Argentinan Maria Servini epailearen aurrean deklaratu duten Estatu espainiarreko biktimen artean daude laurak ere. Gogoan izan, oraingoz, Argentinako epaitegietatik Muñecas eta Pacheco poliziak eta hemeretzi buruzagi frankista (Martin Villa tartean) inputatu dituztela; Argentinako epaileek Espainiako epaitegiei eskaera luzatu diete inputatu horiei deklarazioa har deiezaioten.

Josu Ibargutxik adierazi zuen Argentinako epaitegietara jotzea beste erremediorik ez zaiela geratu frankismoaren biktimei, egia eta justizia eskatzeko. Gehitu zuenez, "Espainian Franco hil ostean frankismoaren estatu aparatuek erabateko inpunitatea lortu zuten Trantsizioa deitu zitzaion prozesu politikoari eta 1977ko amnistiaaren legeari esker". Milaka militante erail eta desagertuak zituzten ezkerreko bi alderdien (PSOE eta PCE) eta nazionalismo euskaldun eta katalanen elite politikoak joko horretan sartu ziren, Ibargutxiren ustetan. Bere esanetan, munduan diktadura sufritu duten herrialdeetatik, soilik bi kasu eza gutzen dira egia eta justiziari uko egin diotenak: Kanbodia eta Estatu espainiarra. Hain zuzen, herrialde horiek dauzkate, egun, desagertu kopururik handienak.

GASTEIZKO SARRASKIAREN LEKUKO

Agustin Plazak Gasteizko gertakizunen inguruko kontakizuna egin zuen. Langileen lan baldintzak hobetzeko, asteetan Gasteizko langileak mobilizatu egin ziren 1976ko martxoan. Gasteiz ezinbesteko erreferentzia bilakatu zen Estatu espainiarrean, erregimenarekin amaitzeko borrokan. Hori garbi ikusi zuen gobernu frankistak; "ez zuen adibidea estatu osora zabaltzerik nahi, eta horrexegatik oso gogor kolpatu zuen. Poliziek langileei

nahita utzi zieten asanblada egin zezaten elizan. Beren helburua, handik denak indarrez aterarazi, eta mina eta eskarmentua eragitea izan zen".

Fraga eta Martin Villa orduko hilketen erantzule politiko gisa jo zituen. Aldi berean, bi salaketa zehatz egin zituen; bata, Fragari Madrilgo kongresuak eskaini zion agur beroa; eta bestea, orain gutxi Iñaki Oizartzabal PPko buruzagiak egin dituen adierazpenak, 1976an poliziek biolentoak setiatu egin zituztela eta beste erremediorik ez zutela eduki adieraziz. Sutsu eta baikor agertu zen: "Nahikoa da inpunitatearekin! Frankistek denek epaitegietan amaitu behar dute, eta horretarako kereilarekin jarraitu behar dugu! Borroka hau irabazi egingo dugu!".

ELIZGIZON BATEN TESTIGANTZA

Felipe Izagirre urnietarra frailea izan zen frankismoan, eta 1964an Arantzazutik irten ondorengo bizipen pertsonalak kontatu zituen, Zamorako apaiz-kartzela liburuan jasota daudenak. "Elizgizon askok herriak jasaten zuen errepresioa ikusten genuen, eta kristau bezala borroka bidea hartu genuen; eliza barruan; herriarekin konprometitu jardun behar genuela argi geneukan". Eibarko goardia zibilen kuartelean zein Donostian jasan zituen tortura gorrak deskribatu zituen, eta atxilotetaren ondoren Zamorako kartzelan beste hainbat euskal apaizekin batera egindako egonaldia ere azaldu zuen. Hala garai hartan nola egun Argentinako kereilan parte hartuz, antzeko eginkizuna bete nahi duela aitortu zuen: "Elizaren erakundeak frankismoarekin erakutsi zuen konplizitatea salatzea".

KEREILARA BATZECO DEIA

Mahai-ingurua osatu zutenek Andoaingo herritarrei deialdi berezia luzatu zieten: "Frankismoan, 1936tik aurrera giza eskubideen aurkako urraketa bat jasan baduzue, edo eta senideren bat baduzue, sar zaitezte kereilan. Eman ezazue urraketa horiei buruzko testigantza; horretarako, nahikoa duzue herrietan jarduten duten elkarte memorialistei laguntza eskatzea".



Jose Luis Martinez Ocio, Felipe Izagirre, Agustin Plaza eta Josu Ibargutxi izan ziren solaskideak Basteron.

EZ ZAITEZ LARANJA ERDIAREKIN KONFORMATU



Gipuzkoako komertzio txikia. Buruak eta bihotzak bat egiten duten lekua.



Kantu berriak Irunberri elkartearen urteurrenean



Disko berriaren aurkezpen kontzertua izango da.

Ostiral honetan gaueko 22:30ean hasiera emango diote Irunberri elkartearen XVI. urteurreneko ospakizunei, **La Jodedera** taldearen kontzertuarekin. Ez da nolanahiko emanaldia izango, larunbat honetan “*Aio kurrilo*” disko berriko kantuak aurkeztuko dituztelako. Musika doinuekin dantza eginez abiatuko da, beraz, urteurreneko ekitaldi sorta.

Aldarrikapenerako tartea biharamunean izango da. Izan ere larunbat eguerdian, 12:00etatik aurrera, “Irunberri ez itxi” lemapean kontzentrazioa egingo dute Merkatu plazan.

Abenduak 13, larunbata
12:00 Elkarretaratzea Merkatu plazan.
16:00 Mus txapelketa.
16:30 Musika-dantza emanaldia eta txokolatada haurrentzat.
20:30 Afari bereziak.
23:00 Musika jartzailea.

Abenduak 14, igandea
11:00 Batzarra.
12:30 Omenaldia.
14:00 Bertso bazkaria: Beloki, Eskudero, Muñoa.
17:00 Beterriko talogileak antzezlan.

Abenduak 19, ostirala
19:00 Pintxo pote berezia.
22:30 Mikro irekia.

Sortzaileak Durangon



Ana Jakak “Ez zen diruagatik” liburua aurkeztu zuen.

Garazi Kamio edota Ana Jakak idazleak Durangoko Azokan izan dira euren azken liburua sinatzen. Liburuen edota diskoen sinadura gerroz eta gehiago zabaltzen ari den ohitura da, eta hori izan daiteke azokak dituen milaka bisitari erakartzeko arrazoietakoa. Lau egunez Durango euskal sortzaileen eta kulturzaileen topagune izan da. Datorren urtean azokak 50 urte beteko dituela eta, edizio berezia iragarri dute.



Garazi Kamio.

Ostegun honetan izango da arratsaldeko 19:00etan, Basteron

Joxe Mari Olazabalen bidea saria odol-emaileentzat



Gipuzkoako odol-emaileen elkarteak urrian hainbat andoaindar omendu zituen.

Andoaingo Caritas elkarteak ostegun honetan “*Joxe Mari Olazabalen bidea*” sari banaketa ekitaldiaren edizio berria antolatuko du Basteron, arratsaldeko 19:00etan hasita. Sari horrekin gizarte eta elkartasun ekintzaren bat modu jarraian egiten duen pertsona edo elkarte saritu nahi izaten dute. Aurten epaimahaiak saria **Andoaingo odol-emaileen elkarte**ari ematea erabaki du:

Odol-emaileek 1975az geroztik egindako lana sarituko dute

“Elkarte horrek modu miresgarri eta altruistan 1975az geroztik andoaindarren elkartasuna bideratu du. Premiazkoak ziren baliabideak martxan jarri ditu, Andoaingo herritarrek kontzientzia har zezaten, anima zitezen eta odola emateko garaian eroso senti zitezen”.

Bide batez, ekitaldia aurten zendu den **Fernando Gaston** Caritas taldeko kidea omentzeko baliatuko dute.

Eta beste behin ere, Caritas taldeak adierazi duenez, “Andoaingo herriari esker ona azalduko diogu, Caritas elkartearekin erakutsi duen eskuza-baltasunagatik. Eguberriei ongiatorria ere emango diegu, behartsuen eta baztertuen alde bereziki lan egiten dugun ospakizunei”.

“Andoaindarrak 400” egitasmoa aurkeztu dute Basteron

2015a, mendeurrenaren urtea Andoainen

Andoainek herri izaera lortu zuela 400 urte beteko dira 2015ean eta hori dela eta urte berezia izango da Andoainen. Denbora luzea eman du Udalak mendeurrenaren prestaketak antolatzen eta aurreko asteazkenean lehen lau hilabeteko ekitaldi sorta iragarri zuen. Urte oparoa izango da, gizarte eta kultura mailako ekitaldi askorekin efemeridea gogoan hartuko baitute. Erakusketa, liburuxka, herri antzerkia, hitzaldiak..., denetik izango da urte osoan zehar.

Mendeurrena gogora ekartzen dituen kamisetak, poltsak, agendak eta txapak salgai



Udal egutegia abenduaren 17tik aurrera eskuragarri izango da Alkatetzan.

jarri ditu Udalak. Udal egutegia dohainik banatuko da Alkatetzan, datorren astean hasi-

ta. Nola ez, egutegiak irudietan mendeurrena izango du gogoan.

“OSASUN PUBLIKOA DEFENDA DEZAGUN” TOLOSAKO TRIANGULO PLAZATIK ABIATUKO DA EGUERDIKO 12:00ETAN

Osasun publikoaren alde manifestazioa larunbat honetan

Manifestazioak, asanbladak, hitzaldiak, alkateen eta diputazioaren babesa, 19.000 sinadura eta abar ez dira nahikoa izan pribatizazioari aurka egiteko eta, horregatik, TOPA eskualdeko osasun publiko-

aren aldeko koordinakundeko kide Javi Arana eta Jesus Mari Aranzegik larunbat honetako manifestaziora joateko deia zabaldu dute.

OSI izeneko modelo berria urtariletik aurrera jarriko da martxan: “Hilabete barru modelo berria sartuko da. Gobernuak argi eta garbi esan du hori dela osasuna kudeatzeko modurik onena, baina diru publikoari kudeaketa pribatua eman nahi diote, etekinak ateratzeko”, salatu du Aranzegik.

Andoainetik Legorretarako biztanleen erreferentziazko ospitalea **Asuncion klinika** da, baita andoaindarrena ere. Beraz, orain arte Donostiako ospitale publikora joaten baziren ere, hemendik aurrera eskumen hori kendu eta Tolosara etorri beharko dute: “Oraintxe Andoaingo biztanleek Tolosara etorri beharko lukete, kontua da orain arte egindako borrokaekin lortu dela Donostiako aukera mantentzea. Herritarrek pentsatu dezakete egoerak berdin jarraitzen duela, baina laister etorriko dira mal-



Jesus Mari Aranzegi eta Javi Arana larunbat honetako manifestazioa iragartzen duen kartela eskuetan.

koak eta burukominak, ezingo baitute hara joan”, dio Aranak.

Andoaingo kasua gozoki pozoinduarekin alderatu du Javi

Aranak eta herrian jarritako espezialitate-kontsultategia herriaren onurarako dela dirudien arren, guztiz aurkakoa dela adierazten du. Osasuna pribati-

zatuta, Andoainen langile gutxiago eta egoera okerragoetan egongo direla azaldu du, ondorioz, herritarrek jasoko duten atentzioak okerrera egingo due-

“Manifestaziora etor daitezen dei egiten diegu andoaindarrei, gure egoera berean daudelako”

TOPAko ordezkariak

la adieraziz: “Andoainen, adibidez, egon dira jubilatutako espezialistak lanean edo espezialitaterik gabeko medikuak. Horrelako egoerak egongo dira pribatizazioarekin, diru gutxiago gastatu nahi dutelako beren langileetan”.

Andoain, osasunaren alorrean, Tolosaldean kokatzen da; beraz, eskualdeak dituen baldintza berak edukiko ditu. “Manifestaziora etor daitezen dei egiten diegu andoaindarrei, gure egoera berean daudelako”, diote TOPAko kideek.

Manifestazioa abenduaren 13an izango da, larunbat honetan, Tolosako Trianguloatik abiatuko da eguerdiko 12:00etan.

POSTONTZIA

POBREZIAK ETA DESPAREKOTASUNAK MILAKA AURPEGI DITU, ETA ERANTZULEAK BARKARIAK, MULTINAZIONALAK ETA EUREN ZERBITZURA DAUDEN GOBERNU USTELAK DIRA. Munduan 1.300 milioi pertsonatik gora egunean euro bat baino gutxiagorekin bizi da. Pertsona horien %70a emakumeak dira. EAEn 250.000 pertsona inguru dago ezegonkortasun egoeran, horietatik 127.000 jada pobrezian bizi direlarik. Egoera hauek arrazoi berbera dute: pertsonak eta bizia alde batera utzi eta dirua helburu duen sistema ekonomikopolitiko-sozial eta kultural bat, aberats eta behartsuen arteko tartea handitzen duena, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko botere-erlazio desorekatuak betikotzen dituen eta emakumezkoak eta natura bereziki azpiratzen dituen.

Horregatik aurten ere, eta hirugarren aldiz jarraian, **Gipuzkoako Kaleratzeak STOP Desahucios** eta **IRPH STOP** kolektiboek, Donostiako **Zero Pobrezia**, **Duintasuna**, **Gepe** eta **Donostiako koordinadora feminista** bezalako eragileekin batera, kalera irteteko dei egiten diogu gizarteari, pobrezia eta desparekotasunaren aurkako manifestazioan, abenduaren 20an, larunbatez, eguerdiko 12:00etan Bulebarrean.

Berriro ere krisi honen errudunak direnentzat epaiketa eta zigorra exijitu eta ondorengo hauek aldarrikatuko ditugu:

- Etxerik gabeko jendeari eta jenderik gabeko etxebizitzetara Stop! Etxebizitzaren euskal lege bat exijitzen dugu, banketxeen esku dauden etxebizitzak zigortu eta desjabetuko dituen eta etxebizitza sozialen parkean sartzeraz derrigortuko duena.
- Pobreturik edota langabezia dauden familien, porrot egin duten autonomoen eta horien guztien abal emaleen etxebizitzetara Stop! Etxea ordainetan eman eta alokairu soziala exijitzen ditugu. Zorra kitatu edota gutxitzeak ere bai. Bigarren aukera bat izateko eskubidea aldarrikatzen dugu.
- IRPHaren lapurretari STOP. Euriborra atzerako eraginez aplikatzea eta lapurturikoa itzultzea exijitzen dugu.
- Pobrezia energetikoari STOP. Pobreturiko familiei argindar edota gas mozketarik ez. Fakturak ez ordaintzegatik jarri diren salaketak erretiratzea eskatzen dugu. Kutxabank akzioduna den Iberdrola euskal multinazionalak jarriak dira gehienak.
- Ahulenen pobrezia eta bazterketari STOP, adibidez haurren malnutrizioa, adingabeak bere

kargu dituzten emakumeak edota pentsio oso txikiak dituzten edadetuak, batez ere alargunak, askok gainera langabezia dauden senideak mantentzen dituztelarik. 2015eko aurrekontuetan RGI eta gizarte laguntzetarako diru gehiago exijitzen dugu.

- Iruzur fiskalari STOP. Batez ere aberatsenen kasuan: enpresa eta ondasun handiak, izan ere zerga bidezkoago batzuekin gizarte gastu handiagoak ordaindu eta pobrezia txikitu dezakegu.
- Zerbitzu publikoak deusezteari STOP. Zerga sistema bidezko eta birbanatzailea behar dugu, gehien dutenek gehiago ordain dezaten. Horrela osasun zerbitzuak, hezkuntza eta gizarte laguntzak ordaindu ahal izango ditugu.
- Kutxabanken pribatizazioari eta gizarte ekintza deusezteari STOP. Kudeatzaile politikoei (PNV, PSE eta PP) eta zuzendaritzako kideei exijitzen diegu euskaldun guztion ondarea inbertitzaile pribatuei ez saltzeko. Gainera, etxea ordainetan hartu eta alokairu soziala eman dezatela exijitzen dugu, banku jarduera bidezkoen kode baten bidez, PYME eta familiei mailaguen iturria ireki eta horrela negozioak itxi eta langabezia igotzea ekiditeko. Kutxa publikoa eta kontrol soziala duena izan dadila, gizartearen eta bere industriaren zerbitzura.

Talde politikoek, Legebiltzarrak, Aldundiak eta udalek beharrezkoak eta erabat bidezkoak diren herritarren proposamen hauek kontutan hartuko dituztenaren itxaropena dugu, zinez, egoera honen soluzioa beraien eskuetan baitago. Beraiek eman diezaiokete konponbidea:

- Etxebizitzaren euskal lege bat.
- Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatera egokituriko guindos dekreto edo banku jardueraren egokien kode bat, baliabiderik gabeko zordunei etxea ordainetan eman eta alokairu soziala posible egingo diona.
- Bidezkoa den zerga-sistema baten bitartez iruzurrarekin behingoz amaitu.
- Iberdrola eta beste energia konpainien fakturak ordaintzeko luzamendu bat negoziatu.
- Gizarte laguntza eta R.G.I.-ari zuzendutako 2015ko aurrekontuen handitzea.
- Eta bereziki Kutxabank-en pribatizazio prozesua galera, ez ditzatela Espainiako bankua edota Bruselas aitzakiatzat jarri, badira pribatizazioaz besteko irtenbideak!

Guztiok elkarrekin ahal dugu!
Abenduaren 20an, larunbatez, 12:00tan Donostiako Bulebarrean denok kalera.
Epaiaketa eta zigorra errudunentzat!



KIROL ALBISTEAK

Urnietako jubenil mailako eta nesken helduen taldeak

Denboraldia aurrera doa eta Urnieta Kirol Elkarteko futbol talde guztiak martxan dira. Lehen hilabeteetan ligaska jokatzeko ari dira eta lortutako sailkapenaren arabera, igoera faseak edota kopa jokatuko dituzte.

Preferente mailakoen aurkezpena iraileko Aiurrin argitaratu zen. Urtea amaitu baino lehen hara hemen jubenil mailako eta nesken mailako taldeen aurkezpenak. Zorte on!



JUBENIL MAILAKO TALDEA

Jokalariak:

Ibai Usabiaga
Julen Yurramendi
Ivan Galan
Mikel Goikoetxea
Danel Aguado
Daniel Cumbres
Ander Urruzola
Mikel Garmendia
Eneko Biain
Alberto García
Julen Abad
Jokin Medina
Gorka Aldanondo
Mikel Castelar
Julen Arretxe
Josu Unanue

Jon Perez
Beñat Lizaso
Alen Frutos
David Cuenca
Javi Pastor
Eneko Ramirez
Casper
Aritz Rodriguez

Entrenatzailea:

Jose Miguel Sanchez

Liga

Sailkapena, 12. jardunaldia:

1. Antigua	31
2. Ostadar	31
3. Euskalduna B	25
4. Urnieta	18



JUBENIL MAILAKO TALDEA

Jokalariak:

Naroa Garcia
Ane Sesma
Ane Dominguez
Maialen Diez
Eider Manterola
Lorea Barkaiztegi
Irati Uranga
Irene Legarra
Ane Arozena
Agate Arregi
Marta Ollakarizketa
Oihana Cortes
Itsasne Urruzola
Dana Menendez
Leire Larrañaga
Entrenatzaileak:
Joseba Duran eta Victor Rico.

Liga

Sailkapena, 11. jardunaldia:

1. Urnieta	23
2. Orioko	21
3. Amara Berri	19
4. Zarautz	10
5. Hernani	9
6. Intxaurdi	7

Emitzak, 11. jardunaldia:

Intxaurdi 0-1 Hernani
Orioko 2-1 Allerru
Urnietako 5-0 Amara Berri
Zarautz [atseden]

Partidak, 12. jardunaldia:

Urnietako-Zarautz
Allerru-Intxaurdi
Amara Berri-Orioko



Diaporama

Guatemala-Kolonbia. Bi urnietarren bizipenak.

Abenduak 17, asteazkena
18:30

Hizlariak:

Jon Ander Areses
Camilo Ruiz



GaztegunUrnietako



Idiazabal, 13 / behea
20130 Urnieta (Gipuzkoa)
Tel.: 943 333 973
gazteinformazioa@urnietako.org



KIROL ALBISTEAK

“Andoainen igeriketarako zaletasuna sortzen ari da”

Borja Apeztegia Buruntzaldea IKT taldeko entrena-tzailea da duela bost urtetatik eta 7 urtetik gorako haur eta helduak entrenatzen ditu Lasarten. Andoi-

nen igeriketak Lasarten bezainbesteko indarra iza-tea gustatuko litzaioke. Denboraldi hasieraz gain, igeriketaren egoeraz hitz egin du.

Abendua txapelketez betetako hilabetea duzue. Oraingoz ondo hasi duzuela dirudi, ezta?

Borja Apeztegia: Bai. Hala ere, denboraldi hasiera da guretzat eta badakigu oraintxe ez dela markak hautsi eta emaitza one-nak lortzeko momentua. Aza-roan neguko ligako jardunal-diak izan ditugu, eta horiek txapelketetan barneratu eta errit-moa hartzen joateko izan dira. Denboraldia ondo hasi dugu, baina ez marka pertsonal ho-riengatik bereziki, baizik eta proba konkretu batzuetan egin-dako hobekuntzengatik. Orain-dik goiz da, 12-14 asteko lana besterik ez dute egin eta orain hasi dira forma hartzen.

Aurrera begira zein txapelketa dituzue?

B.A.: Eguberri inguruan zita be-rezi eta motibagarriak ditugu. Ostiral honetatik igandera bi-tartean, nagusien mailako Na-guko Txapelketa izango da Sa-badellen eta bertan egongo dira **Itxaso Tolosa, Mikel Esnal** eta **Iñi-go Ibarburu**. Oiertzunen ere San Esteban saria izango da larun-bat honetan. Bestalde, aben-duaren 20-21eko asteburuan, talde bezala izaten dugun txapelketarik politenetakoa dator: Klubena Kopa. Horrez gain, 27an Hernanira joango gara ur-teroko kopa lehiatzera eta 29an Nazioarteko Eguberri Sarian parte hartuko dugu.

Zein aurreikuspen dituzu txapel-keta horietarako? Lehenago aurreikusten al duzue nola ibili-ko diren igerilariak?

B.A.: Eduki dezakegu ideia bat nola ibiliko den bakoitza, baina egiten ditugun plangintzak ez dira izaten txapelketa bakoitze-an onena emateko. Igeriketan, kategoriaren arabera den arren, normalean, 2-3 zikloetan bana-tzen dugu denboraldia eta ziklo horien amaierarako bilatzen



Borja Apeztegia Buruntzaldea IKT taldeko entrenatzailea da.

“Nahiko nuke igeriketak bere presentzia izatea, batez ere, herrian bertan zabal dadin jende hori ere existitzen dela”

dugu formarik onena. Hau da, bi edo hiru txapelketetan forma betean egoten dira eta gainera-koak balorazioak egiteko era-biltzen ditugu.

Txapelketa horietan zein izaten da zure papera?

B.A.: Beti esaten diet txapelkete-tan ez dela entrenamenduetan egin ez den zerbaite egiten. Az-kenean, oinarritzko lana entre-namenduan dago, hor ikasten dute nola igeri egin eta hor har-tzen dute behar adinako kon-fiantza. Lehiaketetan, egiten dakiten hori burutu besterik ez dute egiten. Txapelketetan, be-raz, frogak burutu ondoren egindako akats edo taktikoki egindako akatsen inguruko fe-dback-a ematen diet, froga ho-ri nola hobetu eta nondik zu-zendu jakin dezaten. Horrek

igerilariekin nire partehartze aktiboa eskatzen du.

Zer moduz ikusten dituzu Andoi-aingo igerilariak?

B.A.: Ondo ikusten ditut. Hala ere, ulertzen dut Andoainen beste martxa bat dagoela, egi-tura berria delako. Lasarte eta Andoain elkartu zirenetik, Andoainek bi denboraldiko gel-diunea izan zuen, eta ondoren, ia-ia zerotik hasi ginen. Egoera horretan, haurrak ari dira gero eta gehiago animatzen eta gero eta gehiago ikasten, hobeto lehiatzen... Gertatzen dena da oso talde gaztea dela; ez dago igeriketan 3-4 urte daramatzen inor.

Andoainen igeriketarako zaleta-suna falta dela esango zenuke?

B.A.: Gure asmoa denborarekin herri batean zein bestean lana modu berean egitea da. Helbu-rua, beraz, Andoainen ere La-sarten bezala talde egituratu bana izatea da.

Etorkizunean, beraz, herrian

garrantzia hartuko duen kirola izango dela uste duzu?

B.A.: Bai, zaletasuna sortzen ari da eta jendea ezagutzen ari da herrian badagoela talde bat. 2012-2013 denboraldian ha-mar hurrekin hasi ginen eta urtez urte kopurua handitzen doan taldea da. 10etik 20 ingu-rura igaro ginen eta aurten jada 30 lagun inguru dabilta talde-an. Pixkanaka badago igeriketa-ra gerturatzen den jendea eta guretzako garrantzitsua da ge-roz eta jende gehiago anima-tzen dela ikustea. Lanean segi-tzera animatzen gaitu.

Zer sentitzen da igeriketak bes-te hainbat kirolek adinako garran-tzia ez dutela ikustean?

B.A.: Gustatuko litzaidake igeri-ketak toki gehiago izatea zen-bait espaziotan. Kirol jarduera batzuk oso mediatikoak dira. Beste kirol batzuetan, ordea, zerbaite oso garrantzitsua pasa behar du medioetan agertzeko. Diferentzia hor dago.

Nahiko nuke igeriketak bere presentzia izatea, batez ere, he-rrian bertan zabal dadin jende hori ere existitzen dela, esfor-tzua egiten dutela; eta beraien-tzat errekonozimendu bat beza-la.

Egunerokotasunean ez dizue era-giten?

B.A.: Zentzu horretan ez. Baina egoera berezi bat badago: gu gara beste erabiltzaile arrunte-kin espazioa elkarbanatzen du-gun kirolari bakarrak. Horrek zailtasunak sortzen ditu espa-zioari begira, antolaketa begi-ra, ordutegiari begira... Nor-malean, beste talde gehienek beren entrenamenduko eremua izaten dute. Guk ez. Horrekin ere lana egin behar dugu; beti nahi izango dugu egoera hobe bat, baina ez daukagun bitarte-an, daukaguna ahalik eta ondo-en aprobetxatzen saiatuko gara.

San Silvestre lasterketa solidarioa Urnietan



Iazko lehen edizio arrakas-tatsuaren ondoren, aben-duaren 31n ospatuko da Urnietako San Silvestre lasterketa herrikoia II. edizioa. Arratsaldeko lau-retan hasita umeek plazari bi itzuli emango dizkiote, eta ondoren helduen las-terketako txanda izango da, hauek hiriguneko zir-kuitu bati bi itzuli emanaz, bost kilometro osatuko di-tuzte.

Lehen edizioaren antola-tzailea, **Poxta Zahar** izan bazen ere, aurtengoan, beste bi elkarte batu zaiz-kio; herrian eratu berri den **Zanpatuz Mendi Elkarte**a eta **Super H**. Hain zuzen ere, izen-ematean lortzen den diru guztia, azken ho-rientzat izango da eta Do-nostiako ospitaleko hau-rrei bideratuko zaie.

Dagoeneko izena eman daiteke Kantoi, Xauxar eta Amailur tabernetan. Pre-zioa, 3 euro. Lasterketaren egunean, helduak 5 euro, eta umeak euro 1. Antola-tzaileek moztarrotuta ager-tzeko deialdia luzatu dute.



Iaz bezala, antolatzaileek moztarrotuta agertzeko deialdia luzatu dute.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com

Erredaktoreak:

Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com

Publizitatea:

Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

ABENDUAREN 11TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **“French women”**
19:30, 22:00.
Abenduak 13, larunbata.
19:30,
Abenduak 14, igandea.
19:30, 22:00,
Abenduak 15, astelehena.
- **“Los pinguinos de Madagascar”**
Abenduak 13 eta 14. 17:00.
- **Dokumentala:**
“Denak akuriak?” jatorrizko bertsioan, euskarazko azpiztituluekin.
19:30.
Abenduak 16, asteartea.
- **Datorren asteburuan:**
“Trash” eta “Mortadelo y Filemón”.

Urnietan, Sarobe

- **“Five days to dance”**
22:00. Abenduak 12.
18:30. Abenduak 14.
- **“La leyenda de Thor”**
16:00. Abenduak 14.
- **Dokumentalak:**
“Kukutza gaztetxea”,
Abenduak 17, astzk.
“La doctrina del shock”,
Abenduak 23, asteartea.

Diaporama

Urnietan, Gaztegunea

- Jon Ander Areses eta Camilo Ruiz herrikideek “Guatemala-Colombia. Bi urnietarren bizipenak” izeneko hitzaldia eskainiko dute.
18:30. Gaztegunea. Doan.
Abenduak 17, asteazkena.

Gazte Astea

Urnietan, Gaztelekya

- Abenduaren 18ra bitarte izena emateko aukera dago Gaztelekuan bertan. Egitaraua zabala da:
Abenduak 22, astelehena: Futbol txapelketa.
Abenduak 23, asteartea: Opari tailerra.
Hitzordu gehiago urtarrilaren 2ra bitarte.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- **“Al final de la carretera”**, antzezlanaz Txalo konpainiaren eskutik.
21:30. Auditorioa.
Abenduak 12, ostirala.

Segura

- Hiazinto Fernandorenaren “Ez dira aspaldiko kontuak” antzezlanaz.
19:30. Baratze pilotalekua.
Abenduak 13, larunbata.

Batzarra

Urnietan

- **“Hari gara”** prozesuko bigarren bilera.
19:00. Lekaio.
Abenduak 15, astelehena.

Musika

Andoain, Bastero

- Gabonetako kontzertua, Udal musika eskolako ikasleek eskutik.
18:00. Doan.
Abenduak 18, osteguna.
- **“Jainko txiki tea jostalari hura”** ikuskizuna: Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal. Berriaren eskutik, Joxan Lizarrabarren omenez.
Sarrerak salgai: Ernaitza.
20:00. Sarrera: 15 euro.
Abenduak 19, ostirala.

Urnietan

- Lourdes Iriondo musika eskolako ikasleek emanaldiak:
Abenduak 15, astelehena: 17:30. Eliza.
19:00. Sarobe.
Abenduak 16, asteartea: 18:30. Sarobe.
Abenduak 17, asteazkena: 18:30. Sarobe.
Abenduak 18, osteguna: 19:00. Sarobe.
- Egape, Presentacion de Maria eta Salesiarretako ikasleek abesbatza emanaldia.
15:00. Eliza.
Abenduak 16, asteartea.

Omenaldia

Andoain

- **“Joxe Mari Olazabalen bi-dea”** ekitaldia, Caritas elkartearen eskutik.
19:00. Bastero.
Abenduak 11, osteguna.

San Tomas

Urnietan

- Iñistorra elkarteak antolatutako festa: sagardoa, sagar tarta, zozketa eta giro ederra. Usadiozko sagardo txapelketan izen emateko epea irekita dago: 639 546 704 (Joxeba).
Azoka: 17:00-20:30.
Abenduak 21, igandea.

Zikloak

Urnietan

- **“Bezeroaren astea”**, zozketak eta opariak herriko merkatalguneetan.
Abenduak 15-20.
- Andoain**
- Irunberri elkartearen XVI. urteurreneko ospakizunak abenduaren 12tik 19ra.
Kontzertua:
“La Jodedera” zuzenean.
Abenduak 12, ostirala.

Tailerrak

Urnietan, Lekaio

- Eguberrietako oporraldira-ko Udalak hitzordu ugari antolatu ditu haur eta gazteentzat.
Sormen tailerrak:
■ 2006-09 artean jaiotakoak: Buztina lantzea, collage erraldoia, plastilina, jolasak, jausgailuarekin jokoa...
11:00-13:00.
Abenduak 22, 23, 29, 30.
- 2003-05 artean jaiotakoak: Buruhandia egin, paperezko kadeneta; ginkana, jausgailua, jokuak...
17:30-19:00.
Abenduak 22, 29 eta 30

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Iker Aguirreza-balek, urtebete egingo du abenduaren 13an. Zorionaketa muxu pottolo bat gure txikiarentzat. Aita-txo eta amaxo.

ANDOAIN

ZORIONAK



Abenduaren 22an **Maddik** bost urte beteko ditu. Ondo-ondo pasa eta ez galdu irribarre polit hori! Muxu pottolo bat Jon, aita eta ama. Maite zaitugu!

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRIN

Email: diseinua@aiurri.com

Argazkia eta idatzia ekarri: Aiurriko bulegoetan

Hiazinto Fernandorenaren antzezlanaz, taula gainera



Hiazinto Fernandorenaren idatzi batean oinarritutako “Ez dira aspaldiko kontuak” antzezlanaz estreinatuko dute Seguran, larunbat honetan. Emanaldia Baratze pilotalekuan izango da, 19:30etik aurrera. Segurako antzerkizale taldeak bultzatu du egitasmoa, eta inguruetakoko herrietako zenbait herritar ere batu zaizkie.

Denera, 32 lagun igoko dira taula gainera. Adin guztietakoak bilduko dira gainera, haurrak eta adin nagusikoak tartean.

Antzerkia 1936-1939ko Gerra osteko urteetan da-

go kokatua, 1975. urtera arte hain zuzen. Irakas-kuntza du ardatz, eta egoera soziala, erlijio-erakundearen eragina eta ikastolen sorrera jorratzen ditu. Pertsonaia asko agertzen dira bertan; tartean Jaxinto Setien apaiza, jaiotako berriak ziren ikastolen koordinatzaile gisa.

Antzezlanaz kritiko agertzen da haurrei gaztelania besterik eskaintzen ez zien irakaskuntza frankistarekin, baina aldi berean, omenaldi xumea egin nahi die 60ko hamarkadan ikastolen aldeko apustua egin zuten gurasoei.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

DATORREN AIURRI ASTEKARIA ABENDUAREN 18AN ARGITARATUKO DA